



ARAUTEGIA

GIMNASTIKA ERRITMIKOA 2024

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Gimnasiako Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XLI. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu, 2024ko maiatzaren 25an Basauriko Artunduaga Kiroldegian. Hona hemen arautegia:

1. PARTAIDETZA:

Infantil, 2010 eta 2011 urteetan jaiotako neska mutilak eta alebin, 2012 eta 2013 urteetan jaiotako neska mutilak.

Partaideen eskola kiroleko lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiak aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du ekintzan parte hartu

2. JOKATZEKO MODUA

➤ Banakako lehiaketa:

Alebinak: ariketa bat eskuak libre direla eta beste bat sokarekin.

Infantilak: uztaiarekin eta sokarekin ariketa bana.

➤ Taldekako lehiaketa

Alebinak: ariketa bat bost edo sei pilotekin.

Infantilak: ariketa bat bost edo sei uztaiekin.

➤ Taldeen osaera

Lurralde bakoitzak alebin mailan hiru talde aurkez ditzake, bost edo sei gimnasta titular eta ordezkari batez osatuak, eta infantil mailan ere beste hiru talde, bost edo sei gimnastaz eta ordezkari batez osatuak. Horretaz gain, talde bakoitzeko ordezkari edo entrenatzaile bat ere egongo da.



Banakako modalitatean, lurralde bakoitzak, kategoria bakoitzeko bosna gimnasta aurkez ditzake gehienez eta ordezkari edo entrenatzaile bana.

Taldekako lehiaketan kirolari berdinak ezingo du bi talde ezberdinetan parte hartu.

- Ariketa ezberdinen balio teknikoak Gimnasia Erritmikoko Euskal Federaziok argitaratutako arautegi eskolarraren arabera izango dira.
- Gimnasta bakoitzaren entrenatzaileak musika cd bat eraman beharko du, bertan erabilitako musika aurkeztutakoarena baino beste formatu batean izan beharko du erreproduzioarekin arazoak ekiditeko.

3. SARIAK

Ondorengo sariak emango dira:

- Taldekako lehiaketan:
Domina bana lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutakoei kategoriako.
- Banakako lehiaketan:
Domina bana lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutakoei kategoriako.
Aparatu bakoitzeko lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutakoei.

4. EZBEHARREN AURREAN.

Lesio edo ezbeharrik sortu ezker nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

5. AZKEN OHARRA

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontuak argitzeko, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a) 2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena.
- b) 125/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c) 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketan diziiplina-araubideari buruzkoa



EUSKADIKO XLI. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK
XLI JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



- d) AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 16koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2024ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLI. edizioaren deialdia egiteko dena.
- e) EBAZPENA, 2024ko urtarrilaren 25ekoa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, 2024ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLI edizioko lehiaketako epaile bakarria izendatzen duena.
- f) Gimnasiako Euskal Federazioaren Arautegiak agindutakoa.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkerro, gaztelaniazkoa lehentasuna izango du.